

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****ZAMBRANAKO UDALA****Onestea 2022ko zerga egutegia**

Ikusita 2022rako zerga egutegia eta udal honek kudeatzen dituen aldizkako zergak ordaintzeko epea onetsi behar direla, eta kontuan hartuta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoa, hau ebazten dut honen bidez:

Lehenengoa. Onespena ematea 2022ko zerga egutegiari eta jakinarazpen kolektiboaren eta aldizkakoaren borondatezko ordainketa aldiari. Honela geratuko da:

ZERGA	BORONDATEZKO ALDIA	BETEARAZTE ALDIA
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	2022ko martxoaren 1etik apirilaren 30era, biak barne	2022ko maiatzaren 1etik aurrera
— Landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zerga. (OHZ) — Ezaugarri bereziko ondasun higiezin gaineko zerga	2022ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra, biak barne	2022ko irailaren 1etik aurrera
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ)	2022ko urriaren 15etik abenduaren 15era, biak barne	2022ko abenduaren 16tik aurrera

Bigarrena. Zerga erroldak, zeinak ordaindu beharreko kuotak eta horien zerga elementu erabakigarriak jasotzen baitituzte, udal bulegoetan jarriko dira jendaurrean, iragarkia ALHAOn argitaratu ondoren, jendaurreko epean egoki iriztitako alegazioak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena. Dirua sartzeko moduak eta ordainketa egiteko lekuak:

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak: Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta zerga helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Bankuetan ez helbideratutako ordainketak, ordainketa gutun bidez egingo dute ordainketa hauetan:

- Kutxabanken bulegoak.
- Rural Kutxaren bulegoetan.
- Internet bidez, web orri honetan: www.euskadi.eus/mipago.

Zambrana, 2021eko urriaren 13a

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMENEZ DE ABERASTURI